

28-09-2024



Irteera hau gure auzoko jaiekin bat dator. Trenz joango gara Lezamara Uribarritik, eta oinez itzuliko gara Uribarriraino Ganguren mendilerroa zeharkatuz, ibili eta gero bazkari herrikoian parte hartzeko asmoz.

## IBILBIDEA

Lezamako tren geltokitik irtetzean, eta eliza gure ezkerrean utzita, 200m ibiliko gara Larrabetzurantz doan bide nagusitik Aretxalde auzoko bidea topa arte. Bide asfaltuta honetatik igoko gara Olabarriaga baserrira iritsi arte. Handik, mendi-bide batek erreka zeharkatzen du eta Ibaizabal-Nerbioi harana eta Asuakoa banatzen dituen Ganguren mendilerrotantz igotzen da.

Kuzkuburuko gailurrera (426 m) igo ta gero hamaiketakorako geldialdia egingo dugu Elorritxueta-El Vivero atsedenlekuan. Indarra hartuta, erraz igoko gara gero Ganguren gailurrera (447m), gure ingurune hurbilenaren ikuspegi ezberdina ikusteko.

Gailurretik jaitsieran, kontu handiz zeharkatu behar dugu Galdakao eta Artxanda lotzen dituen

errepidea. Ondoren, Avril mendiko pistatik jarraituko dugu eta Mendiartetik eta Landeta bidetik jaitsiko gara Uribarriraino, Eskolako Landara iritsiko gara, bazkari herrikoian parte hartzeko gogoz.

## IKUSI ETA IKASI

- Tren geltokitik irtetean, XVI. mendeko Lezamako eliza ikusi ahal izango dugu.
- Bidean, Bilboko antzinako Burdin Hesiaren aztarnak ikusiko ditugu, 1936ko Gerra Zibilean erresistentzia antifaxistaren ikur izan ziren kanoi, lubaki eta bunkerrekin.

## JAIETAKO BAZKARIA

Irteeran parte hartzeko izena ematean, idatzi "komentariotan" bazkarian ere parte hartu nahi duzun ala ez, aldezturik antolatatu ahal izateko.



## EGURALDIAREN IRAGARPENA

Egunero gaurkoratzen da

- EUSKALMET
- AEMET
- METEOBLUE

## Compártelo:

- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)

- Click to share on Telegram (Opens in new window)
- Click to share on Facebook (Opens in new window)
- Click to share on X (Opens in new window)
- Click to email a link to a friend (Opens in new window)

## DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota	GAILURRA TXIKI. Familientzako irteera
Kokapena	
Metatutako desnibela	+500m / -500m
Luzera	14 km
Jardueraren iraupenaren aurreikuspena	

## Elkartzeko tokia eta ordua

2024ko Irailaren 28an, Zapatua. 08:45etan. Campa de las Escuelas Uribarri-Bilboko Euskotren geltokia

## Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Uribarri-Bilboko Euskotren geltokia (hasiera-amaiera)

## Irteerarako izena emateko azken eguna

27-09-2024

## Jakin beharreko kontu teknikoak

## Prestakuntza fisiko beharrezkoa

## Material tekniko beharrezkoa

1. Jarduerarako eta urte-sasoirako egokiak diren mendiko arropa eta oinetakoak.
2. Edaria eta janaria egun osorako.
3. Txikiek A4 plastikozko zorro batean eraman dezakete mapa , ibilbidearen datuak kontsultatzeko.
4. Ez ahaztu BARIK txartela , eta irakatsi txikiei erabiltzen.

## Bestelako oharrak

## KONTUAN HARTU

### Irten aurretik:

- 1. Informa zaituz: irakurri ondo ibilbidearen fitxa eta mapa zure familirako ibilbide egokia den ala ez erabakituzeko.
- 2. Motibazioa sortu: Hitz egin zure umekin ibilbideari buruz, argazkiak erakutsi, eta eurentzako mapa emon gainean marraztu eta kolorea emon dezaten.
- 3. Motxila prestatu: urteko sasoiak eta jardueraren ezaugarriak kontuan hartu eta behar-beharrezkoak diren gauzak sartu. Umek euren motxila txikia prestatzea ere komenigarria da.

### Mendian:

- 4. Gurasoak dira beraien seme-alaben arduradunak: umek askatasuna behar dute eta euren gurasoak adi egon behar dira.
- 5. Gailurra Mendi Taldeko kide-antolatzaileek jardueraren nondik norakoak ezagutzen dituzte, jarraitu euren orientabide eta aholkuak.
- 6. Komunika zaituz: Zalantzak galdetu. Arazo edo behar bereziak izanez gero, esan zure ondokoei baita antolatzaileei ere.
- 7. Taldearekin bat: ez zaituz aurretatu, ezta atzeratu ere. Batzutan taldea biltzeko geldituko gara, bestetan jateko edo jolasteko.
- 8. Garbi jokatu: Landareak eta animaliak errespetatu. Ez bota harririk. Ez egin zarata haundirik. Zure zaborrak batu eta eraman.
- 9. Ikusi eta ikasi: umeen jakin-minaz kutsatu eta prest egon elkarrekin gauza berriak ikasteko. Era berean, dakizuna zabaldu.
- 10. Laguntasuna sustatu. Tontorrera heltzea atsegina da baina ez da inportanteena.

## Argibide gehiago:

Lluís 619 763 zero 88

